



ALKATETZA / ALCALDIA

BASAURIKO AISIALDIKO EREMUEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN INSTRUKZIOAREN IRAKARGIA

Alkatetzak 2770/2021 Dekretua eman du 2021eko uztailaren 28an, eta, bertan, zera xedatzen du:

Azken hilabeteetan, landa eremuko auzo jakin batzuetako bizilagunen kexak jaso ditugu, herriko piknikguneen eta aisialdiko lekuen erabilera dela eta.

Berriki, Udalak jarritako barbakoak erabiltzearen ondorioz sortutako bizikidetzaz arazoak arintzen saiatu ginen, horiek etxebizitzetatik urrunduz, zaratak eta usainak eragindako eragozpenak saihesteko. Era berean, espazioaren erabilera arautzeko asmoz, eta erabileraren eta bizilagunek jasaten dituzten eragozpenen arteko oreka bilatzen saiatzeko, Berdeguneen Udal Ordenantza idazten ari da.

Hala ere, eguraldi ona iristearekin batera, piknikguneen erabilera areagotu egin da, eta horrenbestez, baita bizilagunen kexak ere, kasu honetan pertsona batzuek barbakoak eramangarriak edo butano bonbonak eramaten dituztelako, janaria Udalak jarritako barbakoaren eremutik kanpo prestatzeko; bizilagunek diotenez, sua etxeetatik 50 bat metrora pizten dute batzuek. Kaltetuek kartelak jartzeko eskatu diote Udalari, sua egiteko elementu eramangarriak erabiltzea debekatuta dagoela ohartarazteko, eta horrenbestez, behin-behineko erregulazio bat beharko da gaur egun izapidetzen ari den ordenantza onartu bitarte.

ANUNCIO DE INSTRUCCIÓN REGULADORA DEL USO DE LAS ÁREAS DE ESPARCIMIENTO DE BASAURI

Con fecha 28 de julio de 2021, esta Alcaldía ha dictado el decreto número 2770/2021 que dispone lo siguiente:

En los últimos meses se han estado recibiendo quejas de vecinos de determinados barrios situados en núcleos rurales con motivo del uso de merenderos y lugares de esparcimiento municipales.

En épocas relativamente recientes se intentó mitigar los problemas de convivencia derivados de la utilización de barbacoas preinstaladas, alejándolas de las viviendas, a fin de evitar las molestias derivadas de ruidos y olores. Asimismo, con la finalidad de regular el uso del espacio, en aras a intentar encontrar un equilibrio entre su utilización y las molestias soportadas por los vecinos, se está redactando una Ordenanza municipal de espacios verdes.

No obstante, con la llegada del buen tiempo, el uso de los merenderos se ha intensificado, incrementándose con ello las quejas de los vecinos, motivadas en esta ocasión porque hay personas que acuden a los mismos provistas de barbacoas portátiles o de bombonas de butano para hacer su comida fuera de la zona de barbacoas preinstaladas por el Ayuntamiento; encendiendo fuego a una distancia de unos 50 metros de las casas -según refieren los vecinos. Los afectados han solicitado al Ayuntamiento la instalación de cartelería advirtiendo de la prohibición de llevar elementos portátiles para hacer fuego, lo cual requiere de algún tipo de regulación provisional hasta tanto la Ordenanza actualmente en trámite, no haya sido aprobada.



Udalaren aholkularitza juridikoari galdetu ondoren, parke publikoak erabilera publikoko ondasunak direla ondorioztatu da (Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduko (RBEL) 3.1 artikulua), eta printzipioz, horien erabilera librea da, baina ezin da edozein modutan egin, baizik eta kontuan hartuta eremuaren izaera, afektazio ekintzak, erabilera publikorako zabalik egotea, eta gainerako lege, erregelamendu eta xedapen orokorrak (RBEL, 76. art.). Hori dela eta, barbakoak edo sua norberak nahi duen lekuan egitea ez da egokitzen parkeen izaerara, izan ere, zarataren eta usainaren ondorioz immisioak eragin eta eragozpenak sortzen zaizkie bizilagunei. Jakina denez, Legeak ez du babesten eskubidez abusatzea edo eskubidea gizartearen aurka erabiltzea. Egilearen asmoagatik, bere helburuagatik edo inguruabarrengatik eskubide baten muga normalak nabarmen gainditzen dituen ekintza edo ez egite orok, hirugarrenari kalte eginez gero, dagokion kalte ordaina ekar dezake, eta abusuak irautea eragozten duten neurri judizialak edo administratiboak hartu daitezke.

Hori dela eta, parkeen eta lorategien erabilera publikoa arautuko duen ordenantza edo erregelamendua izapidetzen jarraitzen den bitartean (Foru Aldundiak, adibidez, Foru Aldundiaren aisialdi eremuen erabilera arautzen duen abenduaren 26ko 174/2017 Foru Dekretua dauka), uste dugu behin-behinean, eta hura onartu arte, Alkatetzaren titularrak instrukzio baten bidez espazio publikoaren erabilera arautzeko eskumena duela, Euskadiko Toki Erakundeen Legeko Lehenengo Xedapen Gehigarrian ezarritako ahalmena baliatuz.

Efectuadas consultas a la Asesoría jurídica municipal, se concluye que los parques públicos son bienes de uso público (art. 3.1 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, RBEL, para los amigos) cuyo uso se ejerce en principio libremente, pero no de cualquier manera, sino conforme a la naturaleza de los mismos, a los actos de afectación y apertura al uso público y a las leyes, reglamentos y demás disposiciones generales (art. 76 RBEL). De ello se sigue que hacer barbacoas o fuegos donde a cada uno le parezca oportuno no resulta acomodado a la naturaleza de los parques, cuando se están produciendo inmisiones y molestias, por ruidos y olores, a los vecinos. Como es conocido, La Ley no ampara el abuso del derecho o el ejercicio antisocial del mismo. Todo acto u omisión que por la intención de su autor, por su objeto o por las circunstancias en que se realice sobrepase manifiestamente los límites normales del ejercicio de un derecho, con daño para tercero, podrá dar lugar a la correspondiente indemnización y a la adopción de las medidas judiciales o administrativas que impidan la persistencia en el abuso.

Por tal circunstancia, sin perjuicio de se continúe con la tramitación de una Ordenanza o Reglamento que regule el uso público de parques y jardines, como ha hecho p. ej., la Diputación Foral por Decreto 174/2017, de 26 de diciembre, por el que se regula el uso de las áreas de esparcimiento de la Diputación Foral, se considera que de forma provisional y hasta tanto no se apruebe la misma, el titular de la Alcaldía está facultado para abordar la regulación del uso del espacio público mediante una Instrucción, ejerciendo la facultad establecida en la Disposición Adicional Primera de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi.



Instrukzio hau aipatutako Foru Dekretuan oinarritzen da, bai eta Portaera eta Garbiketa Publikoa onartzen duen Ordenantza Orokorrean ere, zeinak, 5.2. artikuluan ohartarazten duen pertsona fisikoek eta juridikoek askatasunez erabili ahal izango dituztela Udalaren jabari publikoko espazioak, baina besteen eskubideak eta askatasunak errespetatuz, eta kalterik egin gabe hirugarrenen eskubideei edo ondasunei, eta hain zuzen ere, horixe gertatzen da aisialdirako prestatutako espazioetatik kanpo sua egiten denean.

Ondorioz, Udalaren aholkularitza juridikoaren iritzia eta Bozeramaileen Batzordearen 2021eko uztailaren 28ko bileran esandakoa entzun ondoren, eta Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legeko Lehen Xedapen Gehigarriko 1. ataleko c) letran ezarritako ahalmenak gauzatuz,

XEDATZEN DUT:

LEHENENGOA.- BASAURIKO UDALAREN aisialdiko eremuen erabilera arautzen duen INSTRUKZIOA onartzea. Honako artikulua hauek arautuko dute:

1. artikulua.- Definizioa

Aisialdirako eremutzat hartzen da aire zabalean dagoen eremu oro, hiri altzariez hornitua bertan gaua igaro gabe, hau da, iraupen mugatuko egonaldiak egiteko eta aire zabaleko jolas jardueretarako.

2. artikulua.- Baimendutako erabilerak

Baimenduta dago:

1. Aisialdirako eremuak erabiltzea helburu ekologikoa duten jardueretarako, aisia

La presente instrucción se inspira en el Decreto Foral mencionado así como en la propia Ordenanza General de Comportamiento y Limpieza que previene en su art. 5.2, que las personas físicas y jurídicas, estarán obligadas a ejercer su libertad en los espacios de dominio público municipal, de forma respetuosa con los derechos y libertades de los demás, sin que se produzca menoscabo alguno a los derechos de terceras personas o a sus bienes, como de hecho ocurre cuando se hacen fuegos al margen de los espacios habilitados para ello.

En consecuencia, oído el parecer de la Asesoría Jurídica Municipal y de la Junta de Portavoces en su reunión de fecha 28 de julio de 2021, en el ejercicio de las facultades establecidas en el art. 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y Disposición Adicional Primera, apdo. 1, letra c) de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi,

DISPONGO:

PRIMERO.- Aprobar la INSTRUCCIÓN POR EL QUE SE REGULA EL USO DE LAS ÁREAS DE ESPARCIMIENTO DEL AYUNTAMIENTO DE BASAURI, que se regirá por el siguiente articulado:

Artículo 1.- Definición:

Se entiende por área de esparcimiento toda superficie o entorno al aire libre habilitado con mobiliario para realizar estancias de corta duración, esto es, sin pernoctar en el lugar y realizar actividades de recreo al aire libre.

Artículo 2.- Usos permitidos

Son usos permitidos:

1. La utilización de las áreas de esparcimiento con finalidad ecológica, de ocio saludable,



osasungarrirako, kirol edo turismo jardueretarako eta ondare historiko-kulturalaz gozatzeko xedea duten jardueretarako.

2. Eremu horietan instalatutako zerbitzuak erabiltzea.

3. Animaliak paseatzea. Etxeko animaliak sartu ahal izango dira eremu hauetara, eta haien jabeek erantzun egingo dute animalien jokabideak kalterik eragiten badie aisialdiko eremuan dauden pertsonen edo gauzei, zehurtziagabekeriak edo behar ez bezala jokatzegatik.

4. Sua piztea, soil-soilik janariak prestatzeko, horretarako berariaz instalatutako sutegetan. Pertsona bat egongo da beti sua zaintzen eta inoiz ez dira utziko txingarrak pizturik.

deportiva, turística y de disfrute del patrimonio histórico-cultural.

2. La utilización de los servicios en ellas instalados.

3. La tenencia de animales. Las personas usuarias podrán llevar animales de compañía con la obligación de responsabilizarse de su conducta y de los daños que puedan ocasionar en las personas y cosas situadas en las áreas de esparcimiento, producidos por un comportamiento imprudente o inadecuado.

4. Únicamente podrá encenderse fuego para la preparación de alimentos en los fogones habilitados para ello, sin abandonar el fuego encendido ni dejando brasas incandescentes en los lugares habilitados.

3. artikulua.- Debekatutako erabilerak

Oro har eta berariazko baimenik ezean, debekatuta dago:

1. Edozein ibilgailu motordun sartzea aisialdiko eremuetara, baimendunak izan ezik.

2. Motorrik gabeko ibilgailuak sartzea aisialdiko eremuetara, beren neurri, pisu edo abiaduragatik arriskutsuak izan daitezkeenak oinezkoentzat edo azpiegituraren kontserbaziorako.

3. Talde elektrogenoak erabiltzea eta soinu amplifikatuak emititzea, musika ekipoen, megafoniaren eta antzekoan bidez.

4. Mahaiak erreserbatzea.

5. Hondakinak, zaborrak etab. uztea edukiontzietatik kanpo.

Artículo 3.— Usos prohibidos

Con carácter general y salvo autorización expresa, están específicamente prohibidos los siguientes usos:

1. La circulación por las áreas de esparcimiento de cualquier vehículo a motor excepto autorizados.

2. El tránsito de vehículos o artilugios no motorizados que por sus dimensiones, peso o velocidad comprometan la seguridad de los usuarios o la conservación de la infraestructura.

3. El uso de grupos electrógenos, así como la emisión de sonidos amplificados, a través de equipos musicales, megafonía y otros.

4. La Reserva de mesas.

5. Verter todo tipo de residuos, basuras, etc. fuera de los contenedores.



- | | |
|--|--|
| 6. Sua piztea barbakoetatik kanpo edo barbakoia eramangarriak erabiltzea. | 6. Encender fuego fuera de las barbacoas o hacer uso de barbacoas portátiles. |
| 7. Behin behineko instalazioak muntatzea eta erabiltzea: hala nola futbol ateak, boleibol sareak, etab. | 7. El montaje y uso de instalaciones provisionales como porterías de fútbol, redes de voleibol, etc. |
| 8. Kanpatzea. | 8. Acampar. |
| 9. Alanbrezko itxiturak instalatzea aisialdiko eremuen mugakideak diren lursail eta finketan. | 9. Los cerramientos de alambre de espino en las fincas y terrenos colindantes a las áreas de esparcimiento. |
| 10. Mota guztietako ehiza. Debekatuta dago basa animaliak hiltzea, jazartzea edo nahita edozein kalte eragitea, baita haien habiak, kumeak, arrautzak...suntsitzea, kaltetzea edo biltzea. | 10. La caza de todo tipo y artes. Se prohíbe dar muerte, dañar, molestar o inquietar intencionadamente a los animales silvestres, así como destruir, dañar o recolectar sus nidos, crías o huevos. |
| 11. Basa landaredia erauztea, moztea edo hondatzea. | 11. Arrancar, cortar o dañar ejemplares de la flora silvestre. |
| 12. Berariaz baimendu gabeko edo egokia ez den beste edozein erabilera, baldin eta eragina izan badezake ingurumen kontserbazioan edo mantentze lanetan; hala nola pintadak, txikizioak edo lapurretak seinaleetan, altzarietan, segurtasun elementuetan, zuhaitzetan, zuhaixketan, landareetan, instalazioetan, azpiegiturako elementuetan, etab. | 12. Cualquier otro uso no expresamente autorizado o inadecuado que pueda afectar a su conservación ambiental o al mantenimiento, como actuaciones vandálicas de pintadas, destrozos o sustracción de la señalización, mobiliario, elementos de seguridad, árboles, arbustos, plantas, instalaciones, elementos de la infraestructura, etc. |

4. artikulua.- Zigor araubidea

Instrukzio hau urratzen duten ekintzak edo ez-egiteak zigortu egingo dira Portaera eta Garbiketa Ordenantzaren arabera.

5. artikulua.- Indarraldia eta indarrean sartzea

Instrukzio hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean, eta indarrean egongo da udal berdeguneak arautzen dituen udal ordenantza, edo hura

Artículo 4.—Régimen Sancionador.

Las acciones u omisiones que infrinjan lo dispuesto en esta Instrucción serán sancionadas conforme a lo dispuesto en la Ordenanza de Comportamiento y Limpieza.

Artículo 5.- Vigencia y entrada en vigor.

La presente instrucción entrará en vigor desde el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia y permanecerá en vigor hasta que se publique la Ordenanza municipal



BASAURI
Udala • Ayuntamiento



Bandera
Berdea

indargabetzen edo ordezten duen maila bereko edo handiagoko araudia, argitaratu arte.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Ondasun Sailari, Udaltzaingoari eta udaleko talde politikoei.

HIRUGARRENA.- Instrukzio honen berri ematea Udalaren web orri instituzionalaren eta gizarte hedabideen bidez.

LAUGARRENA.- Instrukzio hau argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herritar denek jakin dezaten eta ondorioak izan ditzan.

reguladora de los espacios verdes municipales o normativa de igual o superior rango que la derogue o sustituya.

SEGUNDO.- Dar traslado de esta resolución a los Departamentos de Bienes, Policía Municipal y a los grupos políticos municipales.

TERCERO.- Dar a conocer esta instrucción a través de la página web institucional del Ayuntamiento y los medios de comunicación social.

CUARTO.- Publicar la presente instrucción en el Boletín Oficial de Bizkaia para general conocimiento y efectos.

ALKATEA / EL ALCALDE



Sin. / Fdo.: Asier Irigorri Basaguren.